

2026 2027 UDAL IKASTAROEN ARAUTEGI OROKORRA:

1. Jarduera guztietan gutxienezko partehartzaile kopurua ezartzen da. Ez bada kopuru hori betetzen, Udalak erabaki dezake jarduera ez egitea.
2. Epez kanpo ez da izenik jasoko (plazarik egon ezean).
3. Ekintza guztietan gehienezko partehartzaile kopurua ezartzen da. Izen-emateak ezarritako gehienezko kopurua baina handiagoak badira honako irizpideen arabera osatuko dira taldeak:
 - Lehentasuna Etxarri Aranatzeko erroldatutako pertsonen izango dute.
 - Oraindik ere jendea soberan geratzen bada, zozketa bidez osatuko da taldea.
4. Etxarri Aranatzeko erroldatuta ez dauden pertsonen %10 gehiago ordainduko dute.
5. **Datuen babesa: 13 2016/679 (EB) Erregelamendua**

Tratamenduaren arduraduna: Etxarri Aranatzeko Udala. Tratamenduaren helburua: kirol-jardueren kudeaketa. Erabiltzaileen kontrola, prezioen kobranta. Eskubideak: datuak atzitu, zuzendu eta ezabatzea, bai eta beste eskubide batzuk ere, Udalaren web orrian eta www.etxarriaranatz.eus egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen informazio gehigarrian azaltzen den bezala.

6. Eskaintako ikastaroak, taldeak, ordutegiak eta lekuak aldatu daitezke, horretarako pisuzko arrazoiak suertatzen badira. Bi talde bakar batean bildu daiteke edo ez atera.
7. Pertsona bakoitzak gehienez bi Kirol ordutegitan eman ahalko du izena.
8. Helbideratutako ordainketa egiteko kontu korrante zenbakia eman beharko da. Behin kargua eginda erreziboa bueltatzen bada %5eko erretegia aplikatuko zaio.
9. Izen-ematea bertan behera uzteko epea urriaren 30en bukatuko da. Bertan behera uzteko eskaera aurkeztu beharko da idatziz udaletxeko erregistroan. Urriaren 30etik aurrera, ikastaroa uzten duenak, ikastaroaren zenbateko osoa ordaindu beharko du. Ez da zenbatekorik itzuliko.
10. Ikastaroaren matrikula bi zatitan kobratuko da.

Urtarrilean edo ondoko hilabeteetan matrikulatzen diren ikasleak urtaril horretatik aurrera ikastaro guztiari dagokion zenbatekoaren erdia ordaindu beharko du. Ikastaroa hasi ondoren eta hurrengo urtarila baino lehen matrikulatzen denak ikastaro osoa ordaindu beharko du.

11. Ikastaroen hizkuntza irizpideak: udalak irakasle elebidunak kontratatuko ditu. Ikastaroen hizkuntza ikasleen euskara ezagutzaren arabera izanen da, betiere denon hizkuntza eskubideak errespetatuz.

IZEN-EMATEAK irailaren 1etik 11era

inprimakiak eskuragai: www.etxarriaranatz.eus webgunean eta udal bulegoan

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 14:00 h.

948 460 004 – kultura@etxarriaranatz.eus

inprimakian eskatutako datu guztiak bete behar dira.

Onartuen zerrendak: irailaren 17an, web orrian eta iragarki oholean. Jardueren hasiera: urriaren 14ko asteen.

Jardueren hasiera: urriaren 5eko asteen